50 urte hiruko hitzarmen lotsagarriak sinatu zirela

50 urte. Mende erdia. Tarte honetan kontaezinak dira sahararrek pairatu dituzten sufrimenduak. Ihesa eta erbestea, gerra, bonbardaketak, kartzela, torturak eta desagerpenak, mespretxua, hizkuntza eta kulturaren zapalketa, bazterketa ekonomikoa, gosetea… den dena arrazoi bakar batengatik: Mendebaldeko Saharan, Espainiako Sahara deitzen zen lurrean, jaio izanagatik. Bai, badakigu Saharar Herria 50 urte baino askoz denbora luzeagoz bizi izan dela izen ederreko bere lur hartan, Sagia el Hamran, Tirisen, Rio de Oron, baina orain dela 50 urte, 1975eko azaroaren 14an, Franco diktadorea hiltzear zegoela, Espainiako gobernuak beren negozio eta boterea mantentzeko asmoz, ordura arte Una Grande y Libre Espainiako parte zen Saharako probintzia, bere jende eta ondasun guztiekin batera Maroko eta Mauritaniaren esku uztea erabaki zuen. Giza lege eta lege guztien kontrako hiruko hitzarmen horiek saharar herriaren autodeterminazio eskubiderako bidea kolpe batez moztu zuten, orain arteko ondorio deitoragarriak eraginez.

50 urte pasa dira eta ez diegu ondoko gobernuei ikusi Hitzarmen lotsagarri horiei uko egiten. Are gehiago, Saharar herriak pairatzen duen zapalkuntza, espoliazioa eta sufrimenduaz erantzukizunik ez onartzeko aitzakia gisa erabili dituzte behin eta berriz.

Baina guk, herritarren gehiengoak bezala, argi esaten dugu Madrilgo Hiruko Akordioek ez dutela inolako baliorik, ez juridikorik, ez moralik ere. Inork ezin du Herri bat saldu salgai bat balitz bezala, are gehiago bere herria ez denean.

Euskal Herriak, estatuko beste herriek bezala, Madrilgo Hiruko Hitzarmenak prestatu zituztenak -Juan Carlos Borbon tartean-, sinatu zituztenak eta, ondoren baliatu dituztenak madarikatu ditu eta, justiziarik badago, egun batean zigortuak izango dira eta estatuak bere gain hartu eta konpondu egin beharko ditu eragindako kalteak. Baina ordua da horretarako pausuak emateko.

Hortaz, Espainiako gobernuari exijitzen diogu behin betiko Madrilgo Hiruko Hitzarmenak arbuiatu ditzala eta ofizialki Saharar Herriarekin dituen legezko konpromisoak, potentzia koloniala den aldetik, onar ditzala; Saharar Herriaren autodeterminaziorako eskubidea argi eta garbi onar dezala eta hura lortzeko egin behar dituen eginahal guztiak egin ditzala edo, bestela, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa ofizialki onar dezala. Edozein kasutan, bitartean, Saharako potentzia okupatzaileari, Marokori, diplomatikoki, ekonomikoki eta politikoki ere, presioa egin diezaiola lurraldea utzi eta saharar herriaren eta saharar guztien eskubide guztiak errespeta ditzan.

Era berean, herriari, instituzio, indar sozial eta politiko demokratiko guztiei eskatzen diegu presioa egin dezatela helburu horiek lortzeko.

Gora Sahara Askatuta!
Gora Herrien arteko Elkartasuna!
Madrilgo Hitzarmen Hirukoak Pikutara!